

#MugarikGabekoAniztasuna Twitter lehiaketa

Oinarriak

- 1- **HELBURUA:** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari (EGK) ideiak eta proposamenak ematea Aniztasun Funtzionalari buruz duen diskurtsoa ikuspegi barne-hartzaile batetik osatzeko. Era berean, asmoa gaia gizarteratzea da.

- 2- **BALDINTZAK:** Lehiaketan parte hartzeko **18 eta 30 urte arteko gaztea** izan behar duzu (ezingo da erakunde edo eragile baten izenean parte-hartu) eta **EAEkoa izan edo bertan bizi**. Horretaz gain, txioak honako ezaugarriak bete beharko ditu lehiaketan kontuak izateko:
 - a. Txioak **#MugarikGabekoAniztasuna traola** izan behar du.
 - b. Parte hartzaileak **@GazteKontseilua Twitter kontuaren jarraitzailea** izan behar du.
 - c. Txioak aipamena egin behar dio **@GazteKontseilua** Twitter kontuari.
 - d. Txioa jartzen duen pertsonak, **horrelako galderei erantzun behar die:**
 - i. Zein da Aniztasun Funtzionala duten gazteen egoera?
 - ii. Zein dira egunerokoan topatzen dituzten oztupoak? Bizitzako zein arlotan?
 - iii. Zertan hobetu behar du gizarateak barne-hartzaileagoa izateko?
 - iv. Zer motatako praktikak funtzionatzen dute ondo? Ezagutzen duzu adibiderik?
 - v. Zer gai edo ekimen landu beharko genuke 2018an egoera ezagutarazteko?
 - vi. Zer mezu gustatuko litzazuke EGKtik entzutea hurrengo urtean?
 - vii. Zer eskatu edo aldarrikatu beharko genuke erakundeekin biltzen garenean?
 - e. Txioa euskaraz zein gaztelaniaz (ala bietan) izan daiteke.
 - f. EGK-ko lantaldeko kideak eta Batzorde Iraunkorreko kideak zozketatik at geratuko dira.

- 3- **SARIAK**
 - 1go saria: [Zuhaitz Etxeak](#)-en gau bat.
 2. saria: Escape room saioa eta Operarako sarrera bikoitza (ABAO).
 3. saria: Bidezko merkataritzako saski bat.

- 4- **EPEA:** Lehiaketa **abenduaren 8etik 18ra arte** (egun hau barne) **bidalitako txioen artean** egingo da.

- 5- **ERABAKIA:** Saria emateko, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) zozketa egingo du lehiaketaren parte-hartzaile guztien artean, betiere **2 ataleko baldintzak** betetzen badituzte. Txio bakarra ala txio bat baino gehiago jarri, pertsona bakoitzak zenbaki

bakarra izango du zozketan. Hau da, saria irabazteko aukera bera dago txio bat ala txio bat baino gehiago bidalita.

- 6- **ZOZKETA:** Abenduaren 19an (astelehena) eguerdiko 11.30ean egingo da, Donostiako EGK-ko egoitzan ([Andia kalea, 11](#)) modu publikoan, hau da, edonor bertara daiteke zozketa ikustera. Hiru irabazle egongo dira eta hiru ordezko.
- 7- **JAKINARAZPENAK:** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) abenduaren 19an bertan jakinaraziko ditu saridunak. Batetik, Twitter sare sozialean mezu publiko bitartez, eta, bestetik, saritu bakoitzari mezu pribatu bitartez. Sarituek abenduaren 20ko eguerdia (12:00) baino lehen erantzuten ez badute, saria zozketan ordezko gisa geratu diren pertsonen egokitu zaie. Ordezkoek abenduaren 22ko eguerdia (12:00) baino lehen erantzuten ez badute, saria eman gabe geratuko da.
- 8- **SARIA EMATEKO:** Saria jasotzeko, sarituak gertuen duen Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) egoitzara joan beharko du ([Bilbo](#), [Vitoria-Gasteiz](#) edo [Donostian](#)), bertako langileekin adostutako ordu batean. NANA eskuan eraman beharko dute eta, Twitterreko izena izengoiti bat bada, kontua haiena dela frogatu beharko dute. Bestalde, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) argazkia egingo die sare sozialetan sariaren berri emateko.
- 9- **ONESPENA:** Zozketa honetan parte hartzeak lehiaketaren eta zozketaren oinarriekin bat egitea suposatzen du.
- 10- **ARDURA:** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) jasotako txioen edukiaren gaineko edozein ardura ukatzen du, baita parte-hartzaileen jokabidearen gaineko ardura oro ere.

twitter.com/GazteKontseilua